

ERREGEAREN FROGA

Kontalaria: Behin batetan, herri txiki batean erregea, erregina eta bere alaba bizi ziren.

Erregea: Alaba asper- asper eginda nago. Deituko al diegu gerlariei?

Alaba: Oso ondo ! lupi!

Erregea: (hiru txalo jotzen ditu) Serbitzari!

Serbitzaria: Zer nahi du bere gorentasun horrek!

Erregea: Deitu gerlariei!

Serbitzaria: Oraintxe errege.

(Aspertu denean)

Erregea: Aspertu nauzue! Zoazte eta datozela musikariak!

Musikariak dantza eginaz “Erdi aroko zalduntxo” abestuko dute.

(Hauek bukatu ondoren)

Kontalaria: Erregea eta erregina zahar zaharrak ziren eta bere ardura handiena hurrengo erregea aukeratzea zen. Jende guztiak zekien errege berria izateko, lehenengo, bere alabarekin ezkondu behar zela.

Erregea: Alaba, oso zahartuta nago eta ez dut jadanik erregearen lana egiteko indarririk. Hurrengo erregea aukeratzeko garaia heldu da.

Alaba: Aita, baina hurrengo erregeak nirekin ezkondu behar du.

Erregea: Bai alabatxo, horretan ere pentsatu dut. Zurekin ezkonduko den gizonak oso indartsua izan behar du.

Alaba: Ez aita, nik Ander maite dut eta Anderrekin ezkondu nahi dut. Ez da oso indartsua, baina bai oso argia eta maitekorra.

Erregea: Ezta pentsatu ere! Hurrengo erregeak indartsua izan behar du.

Alaba: Ez aita, hurrengo erregeak gizon argia eta maitekorra izan behar du.

Erregea: Ezetz!

Alaba: Baietz!

Erregea: Ezetz!

Alaba: Baietz!

Erregea: Ezetz!

Alaba: Baietz!

Erregea: Nahiko da! Froga bat egingo dugu eta kito.

Herritarrak plazan:(taldeka jarrita daude eta elkarrekin tertulian ari dira).

Erregea: (hiru txalo jo) Zerbitzari! Zatoz eta bota ezazu bando hau herrian!

Serbitzaria: Zure esanetara gorentasun hori.

Serbitzaria: Bando, bando! (Gutunean dagoena hiru aldiz errepikatu).

Herriko jendea:Bandoa,errege berria aukeratzeko froga!

Kontalaria: Alabarekin ezkondu nahi zuten gizonak hiru ziren: Patxi, Fermin eta Ander. Patxi eta Fermin gizon oso indartsuak ziren. Ander berriz. gizon oso argia eta maitekorra zen.

Erregeak hiru gizonak deitu zituen.

Erregea: Entzun gizonak, froga bat prestatu dut. Froga hori pasatzen duena, nire alabarekin ezkonduko da eta hurrengo erregea izango da.

Patxi: Ederki ederki.

Fermin: Bai, bai, froga bat egingo dugu.

Ander: Eta zein izango da froga hori?

Erregina: Gutun azal honetan dago eta bihar arte gazteluan izango dugu gordeta, bihar izango baita froga eguna.

Kontalaria: Gau hartan Patxiren ama aita eta izeba gazteluan ezkutuan sartu ziren. Froga aurkitu nahi zuten.

(Iluntasuna dago. Erregea eta alaba lotan daude. Baina erregina eta bere ama izkina batean ezkutaturik dago. Gaua da eta iluntasuna dago).

Ama: *(linterna bat eskuan duela eta hanka puntetan ibiliz)* Gutun azala aurkitu eta froga irakurriko dugu.

Izeba: Horrela Patxi biharko froga gaur gauean prestatu ahal izango du.

Aita: *(linterna bat eskuan darama)* Bai horrela Patxi izango da hurrengo erregea. Ea non dagoen gutun azala...

Ama: Hemen dago!

Erregina eta bere ama: *Izara bat gainean duela mamuz mozorroturik ateratzen dira eta ahots beldurgarriaz hitz egiten dute)* Gazteluko mamuak gara. Zertan ari zarete?

Aita: Ma... ma... mamu bat.

Ama: Ez dugu bizitzan tranpa gehiagorik egingo...

(korrika ihes egiten duten gaztelutik)

Erregina: (Izara gainetik kentzen du) Banengoen ba, norbait tranpa egiten saiatuko zela.

Ama: Badaezpada berriro ezkutatuko gara.

Kontalaria: Orduan Ferminen anaiak eta arrebak sartu ziren gazteluan.

Anaia 1: (linterna bat eskuan duela eta hanka puntetan ibiliz) Gutun azala aurkitu eta froga irakurriko dugu.

Anaia 2: Horrela Ferminek biharko froga gaur gauean prestatu ahal izango du.

Arreba 1: (linterna bat eskuan darama) Bai horrela Fermin izango da hurrengo erregea.

Arreba 2: Anaia: Ea non dagoen gutun azala...

Denak: Hemen dago!

Erregina eta ama: *(Izara bat gainean dutela mamuz mozorroturik ateratzen dira eta ahots beldurgarriaz hitz egiten dute)* Gazteluko mamuak gara

Zertan ari zarete?

Anaia-arrebak: Ma... ma... mamu bat.

Ez dugu bizitzan tranpa gehiagorik egingo...

(korrika ihes egiten duten gaztelutik)

Kontalaria: Susto ederra hartu ondoren, herriko plazan elkartu ziren guztiak. Erregea eta erregina zaldiaren gainean heldu ziren.

Erregea: *(Gutun azala eskuetan hartzen du eta barruan dagoen orriari begirada bat ematen dio)* Gizonak pentsatu dudan froga oso erreza da.

Ikusten duzue plazako zakua? *(plaza erdian 500 kiloko harri (zaku)bat dago).*

Denak: Bai, bai.

Erregea: Zaku hori nire zaldiaren ondoan uzten duenak irabaziko du.

Alaba: Baina aita, froga hori gizon indartsuenak beteko du!

Erregea: Nahikoa da! Froga betetzen duenak irabaziko du eta zurekin ezkonduko da.

Patxi, hasi.

Patxi: Je, je, je, nik ez dut alaba maite, baina errege izan nahi dut. Nik indar handia dut eta froga hau niretzat oso erreza da.

(harria bultzatzen saiatzen da) Ea, uf... uf...

Herriko jendeak animatzen du.

uffffffff...

Ezin dut mugitu asko pisatzen du.

Erregea: Patxi galdu duzu. Fermin zure txanda.

Fermin: Je, je, je, nik ez dut alaba maite, baina errege izan nahi dut. Nik indar handia dut eta froga hau niretzat oso erreza da.

(harria bultzatzen saiatzen da) Ea uffffffff...

Herriko jendeak animatzen du

Ezin dut mugitu asko pisatzen du.

Erregea: Fermin galdu duzu. Ander zure txanda:

Ander: Errege jauna, esango didazu berriro zein den froga?

Erregea: Berriro? Tira ba, (ZAKU)harri hori nire zaldiaren ondoan uzten duenak irabaziko du.

Kontalaria: Anderrek alaba asko maite zuen eta alabak Ander ere bai. Pentsatzen egon eta gero ideia bat izan zuen. Poltsikotik azenario bat atera... eta begira zer gertatu zen.

Ander: Zaldia tos, tos, tos tos...

(zaldia azenarioaren atzetik mantso mantso doa. Harriaren (zakua)ondora iristean, Anderrek azenarioa ahora ematen dio).

Oso ondo zalditxo.

Erregea: Baina, baina... Zer demontre da hau?

Ander: Errege jauna froga bete dut. Harria zaldiaren ondoan dago.

Erregea: Adarra jotzen ari zara? Kartzelara bidaliko zaitut!

Alaba: Egia da aita. Harria zaldiaren ondoan dago.

Ander: Ez duzu esan(zakua) harria mugitzeko. Bata bestearen ondoan uzteko eskatu duzu.

Erregea: *(pentsakor gelditzen da une batez)* Arrazoia duzu. Froga bete duzu eta nire alabarekin ezkonduko zara. Belaunikatu zaitezte biok.

(Ander eta alaba belaunikatu egiten dira. Erregeak bere ezpatarekin bedeinkatu eta koroak buru gainean ezartzen dizkie).

Ander errege berria izendatzen zaitut, alabatxo erregina berria izendatzen zaitut. Hala bedi.

Kontalariak: Badakizue argi ibili
eta burua erabili.

Denak:

Eta hala bazan, ez bazan
sar dadila kalabazan
eta irten dadila
Ordiziako plazan

Egilea: Iñaki Aldai